



## **ATAUNGO UDALA**

### **2002KO MARTXOAREN 13AN UDALBATZA OSOAK** **EGINDAKO BILKURA BEREZIA.**

Ataungo Udaletxean, bi mila eta biko martxoaren hamahiruan, 20:30ean, Udalbatza Osoa bildu zen bilkura berezia egiteko. Batzarburu bezala Iñaki Eskisabel Zurutuza jarduneko alkatea aritu zen, eta aurrez batzarkide guztiei egin zitzaien bertaratzeko deia.

Honako zinegotzi hauek etorri ziren: Jexux Goikoetxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika, Santi Etxeberria Goikoetxea, Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Munduate Dorronsoro, Lourdes Etxeberria Arrese eta Joxe Mari Barandiaran Begiristain.

Idazkaria: Serafin Jaka Arrizabalaga.

Aitor Auzmendi Asurabarrenak ere bilkuran parte hartu du, batzar aretora agertze hutsarekin bada ere, alkate kargua betetzeko ezgaitua dagoenez gero.

### **I.- 2001EKO IRAILAREN 12AN, AZAROAREN 7AN ETA ABENDUAREN 26AN EGINDAKO BILKURETAKO AKTAK.**

Batzarburuak bilkurari hasiera eman eta 2001eko irailaren 12an, azaroaren 7an eta abenduaren 26an egindako bilkuretako aktak aztertu dira.

Aktak atzerapenez aurkezten direnean orain arte izan duten irizpideari jarraiki, oraingo honetan ere abstenitu egingo direla adierazi du Aitor Aldasorok.

Hori horrela, bozketa burutu eta aktak idatzita dauden bezala onartu dira. Iñaki Eskisabel Zurutuza, Jexux Goikoetxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika eta Santi Etxeberria Goikoetxeak aldeko botua eman dute, eta Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Munduate Dorronsoro, Lourdes Etxeberria Arrese eta Joxe Mari Barandiaran Begiristain abstenitu egin dira.

### **II.- SAN MARTINEN ESPALOA EGITEKO PROIEKTUA.**

Ataungo San Martin auzoan espaloia egiteko proiektuari buruzko iritzia eskatu die batzarburuak gainerako kideei. Proiektu hori Iñaki Laskurain Gisasola bide-ingeniariak idatzi du. Hona hemen kontrata bidezko egikaritzapen-aurrekontuaren zenbatekoa: 52.459,65 euro. Espaloia Dorronsoroeneatik Paskual iturriraino joango da. Tarte horren espaloi-proiektua egitearen arazoia honako hau da:



## **ATAUNgo UDALA**

errepidearen beste aldean aurreikusitako eraikuntzak burutzen badira bi ladetako espaloiak batera egitea.

Proiektuaren aurreikuspenei dagokienez, batzarburuak adierazi du zerbitzuko sare guztiak kontuan hartu direla (ura, saneamendua, etab.).

Hori horrela, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, proiektua hamabost egunez jendearen aztergai jartzea erabaki du. Epe horretan inolako alegaziorik egin ezean, behin-betiko onartutzat joko da.

### **III.- ATAUNGO UDALAREN ETA "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." IZENEN SOZIJETATEAREN ARTEAN ONDASUN HIGIEZINAK TRUKATZEARI DAGOKIONEZ UDALBATZARI EGIN BEHARREKO PROPOSAMENA.**

Truke proposamenari buruzko iritzia eskatu die batzarburuak gainerako kideei. Trukearen helburua zein den, beharrak zeintzuk diren eta ondasunek zenbat balio duten ere aipatu du. Hona hemen, hitzez hitz, proposamena zertan datzan:

"ATAUNGO UDALAREN ETA "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." IZENEN SOZIJETATEAREN ARTEAN ONDASUN HIGIEZINAK TRUKATZEARI DAGOKIONEZ UDALBATZARI EGIN BEHARREKO PROPOSAMENA.-

1.- Jarraian deskribatutako partzela Ataungo Udalarena da:

"HIRITARRA.- BOST ZENBAKIKO AZPIPARTZELA.- Pabilioi industrialerako izango den partzela. Azalera: 702,8034 m<sup>2</sup>. Zubikoetako Plan Partzialeko 7.5 atala, Udalari egin beharreko %15eko lagapenari buruzkoa. Gaurko arautegiak, ordea, %10eko lagapena ezartzen du. Hori dela eta, beharrezko zuzenketa egin da lehengo ordenazioa arautegi berrira egokitzearen.

Mugakide ditu: Iparraldean, partzela industrial pribatua; Hegoaldean, udal berdegunea; Ekialdean eta Mendebaldean, partzela industrial ez eraikigarria, sektoreko plan partzialak afektatutako partikularrei proindibiso esleitutakoa.

Eraikuntza-probetxamendua: behe solairuan 702,8034 m<sup>2</sup> eta lehen solairuan 210,8775 m<sup>2</sup>.

Sektorearen zati bateko (13 zk.ko partzela) guztien elementuen gaineko partaidetza: %10,41.

Hirigintza-legedian ezarritakoaren arabera, ez da ezarriko batere kargarik".



## ATAUNGO UDALA

**Titulua:** Ataungo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1.1 G.U. Zubikoeta Sektorearen Konpentsazio Proiektuaren adjudikazioa. Udalbatzak, 1999ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, proiektua behin-betiko onartzea erabaki zuen.

**Inskripzioa:** Tolosako Jabetza Erregistroa. Liburukia: 1869. Liburua: Ataungo 61.a. Folioa: 70. Finka zk.: 3. 762.

2.- "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietatea, I.F.Z. B-20719456 zk.koa duena eta Lazkaoko Ibabe Industrialdean, 18.ean helbideratua dagoena, José Carlos Arnedo Ruiz Donostiako notarioak 2001-12-26an egindako eskrituraren bidez eratu zen denbora mugagaberako. Protokolo zk.: 3646. Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribaturik dago. Liburukia: 1869. Liburua: 0. Folioa: 90. Sekzioa: 8. Orria: SS - 18528. Sozietate hau, ondoren deskribatutako partzelaren jabe da:

"HIRITARRA.- ZORTZI ZENBAKIKO AZPIPARTZELA.- Pabilioi industrialerako izango den azpipartzela. Azalera: 690,6702 m<sup>2</sup>. A partzela, Zubikoetako plan partzialaren ordenantzetako 43.1 art. Mugakide ditu: Iparraldean, partzela industrial pribatua; Hegoaldean, Ataungo Udalari laga beharreko partzela industrial pribatua; Ekialdean eta Mendebaldean, partzela industrial pribatu ez eraikigarria.

Eraikuntza-probetxamendua: behe solairuan 690,6702 m<sup>2</sup> eta lehen solairuan 207,2369 m<sup>2</sup>.

Sektorearen zati bateko (13 zk.ko partzela) guztien elementuen gaineko partaidetza: %10,23.

Zubikoeta sektoreko urbanizazio obrek eta gestioek eragindako gastuei dagokienez partzelaren partaidetza koefizientea %10,9192koa da, eta 8.815.559,25 pezetarekin zergapeturik dago. Zenbateko hori behin--behineko kitapenari dagokion saldoa da".

**Titulua:** María Ángeles, José, María Mercedes eta M<sup>a</sup> Josefa-Justina Echeverria Grucelain jaun-andreei erositakoa. Ignacio Pagola Villar Oridiziako notarioak baimendutako eskritura. Data: 2001-05-31. Protokolo zk.: 931.

**Inskripzioa:** Tolosako Jabetza Erregistroa. Liburukia: 1869. Liburua: Ataungo 61.a. Folioa: 76. Finka zk.: 3. 765.

3.- Aurreko bi ataletan deskribatutako partzelak mugakideak dira. "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietatearen lege-ordezkariekin hitz egin ondoren, hark adierazi du martxan jarri behar duen enpresa-jarduera zuzen eta egoki aurrera eramateko, planta-okupazioko 1.000,00 m<sup>2</sup>



## **ATAUNGO UDALA**

inguruko partzela eraikigarria behar duela. Hori dela eta, honako truke hau egiteko prest agertu da:

- Ataungo Udalak, truke bidez, 702,8034 m<sup>2</sup>-ko azalera duen BOST ZENBAKIKO AZPIPARTZELA lagako lioke "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietateari.
- "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietateak 350,00 m<sup>2</sup>-ko azalera duen pabilioi eraikia lagako lioke Ataungo Udalari, ZORTZI ZENBAKIKO AZPIPARTZELAREN Iparraldeko mugan.

4.- Ataungo Udalak, adierazitako ezaugarriak dituen pabilioi eraiki bat behar du udal-behar hauei aurre egiteko:

Kanpoko lanak egiten dituen lantaldearen ibilgailuak eta garraio tresneriak eta udalaren jabetzako makinak, tresnak, altzariak eta lanabesak gordetzeko.

Bestalde, truke honek herrian martxan jarri behar den enpresa batekin elkarlanean jarduteko bide ematen du. Enpresa horri partzela bat eman behar zaio, non bere beharrei erantzungo dien eraikin bat egin dezakeen. Modu horretan, udalerrriaren garapen ekonomikoa bultzatzen da, horrek maila guztietan dtuen ondorioekin.

5.- Udaleko tekniko-aholkulariak egindako txostenean ezarritakoaren arabera, trukatu nahi diren ondasunen balioak ondorengo hauek dira:

- BOST ZENBAKIKO AZPIPARTZELA. Azalera: 702,8034 m<sup>2</sup>.  
702,8034 m<sup>2</sup> x 171,29 euro/m<sup>2</sup> = 120.383,19 euro.
- ZORTZI ZENBAKIKO AZPIPARTZELA. 350,00 m<sup>2</sup>-ko azalera duen pabilioi eraikia.  
350,00 m<sup>2</sup> x 480,81 euro/m<sup>2</sup> = 168.283,50 euro.

Toki-Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiko 112.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, ondasun higiezin trukeak burutzeko -ondasunak besterentzeko formula gisa-, trukatu nahi diren ondasunen balioaren arteko aldea ezin da %40koa baino handiagoa izan balio handiena duen ondasunarekiko. Kasu honetan, bataren eta bestearen arteko aldea %28,46406koa dela ikus daiteke, hau da, araubidez ezarritako ehunekoa baino txikigoa.

Trukatu nahi diren ondasunen balioak kontuan izanik, Ataungo Udalak 47.900,31 euro ordaindu behar lizkioke "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietateari.

6.- Azkenik, eta "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietateak truke bidez eman beharreko pabilioia oraindik ere eraiki gabe dagoenez, truke honen baldintzak ezarri behar dira:



## ATAUNGO UDALA

- a) Batera erabakitako proiektuaren arabera eraikiko da pabilioia.
- b) Pabilioia eraikitzeko egutegia eta gehienezko epeak:
  - Baimena lortzeko, proiektua Ataungo Udaletxean aurkezteko epea: 2002ko maiatzaren 2a.
  - Pabilioia eraikitzeko, obra berriari dagokion aitorpena egiteko eta lehen okupazioko baimena lortzeko epea: urte bete, eraikitzeko baimena jakinarazten denetik kontaturik.

Epe horiek bete ezean, akordioa ondoriorik gabe geratuko da.

- c) "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietateak, truke bidez, 350,00 m<sup>2</sup>-ko pabilioia eta pabilioi horren lehen solairuaren probetxamendua (proporzionala) utziko dizkio Ataungo Udalari, behin obra berriari dagokion aitorpena egin eta Jabetza Erregistroan inskribatu ondoren, edozein motako karga eta/edo zorrik gabe. Guztien elementuekiko partaidetzari dagokienez, okupatzen duen partzelaren azalerarekiko proporzionala izango da.
- d) Alderdi baten eta bestearen arteko transmisioek eragindako gastuak eta zergak honako modu honetan ordainduko dira:
  - Ataungo Udalak 702,8034 m<sup>2</sup>-ko azalera duen BOST ZENBAKIKO AZPIPARTZELA "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietateari uztea, "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietateak.
  - "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietateak ZORTZI ZENBAKIKO AZPIPARTZELAN eraikitako 350,00 m<sup>2</sup>-ko pabilioia Ataungo Udalari uztea, Ataungo Udalak.
- e) Ataungo Udalak 47.900,31 euroko aldea ordaindu behar dio "TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L." izeneko sozietateari. Pabilioia Udalaren esku utzi eta eskritura publikoa sinatutakoan egingo da ordainketa."

Aitor Aldasorok esan du ez dagoela ados proposamenarekin, izan ere, beraien ustez, Udalak pabilioia eraiki eta berau udal-biltegi bezala erabiltzeaz gain, herrian sor daitezkeen ekimenei beste zerbitzu batzuk eskaini behar lizkieke edota bere babesa eman.

Batzarburuak aditzera eman du, oposizioak egindako proposamenak 46 milioiko inbertsioa egitea ekarriko lukeela; eta horrekin loturik adierazi du, enpresa-inkubadore eginkizunerako eskualdean Goieki dagoela.



## **ATAUNGo UDALA**

Besterik gabe, botu-emanketa egin eta berdinketa egon denez gero, Iñaki Eskisabel, Jexux Goikoetxea, Jaione Munduate eta Santi Etxeberriak aldeko botua eman dutelarik, eta Aitor Aldasoro, Oihana Munduate, Lourdes Etxeberria eta Joxe Mari Barandiaranek aurkakoa, bigarren bozketa egin da, eta oraingo honetan ere emaitza lehengo berbera izan denez, azkenik, batzarburua kalitateko botoaz baliatu eta onartu egin da proposamena.

### **IV.- AGAUTZ MENDIAN LARRE-APROBETXAMENDUA ARAUTZEKO**

**ORDENANTZA.-** "Ataungo Udalaren jabetzako MARUMENDI" 2.015.3 zk.ko herri-onurako mendian larratzea arautzeko ordenantza"ri buruzko iritzia eskatu die batzarburuak gainerako kideei. Hona hemen ordenantzaren edukia, hitzez hitz:

"ATAUNGO UDALAREN JABETZAKO ONURA PUBLIKOKO 2.015.3 zk. MENDIAN, MARUMENDI IZENEKOAN, LARRATZEAK ARAUTZEKO ORDENANTZA.

Azken urte hauetan, Gipuzkoako Foru Diputazioak herri-larreak hobetu eta ustiatzen eduki duen esperientzia ona izan denez, orain beharrezko dela uste dugu larratze horiek baimentzeko mekanismoak eta erabiltzeko erak udal ordenantza batzuen bidez arautzea.

Horregatik, Ataungo Udalak bere mendiak antolatu eta ustiatzeko duen eskumenaren indarrez, Baso Administrazioak emandako arauak betez, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Udalen Ondasunen Erregelamenduko 39, 42 eta 101. artikuluetan ezarri bezala,

### **XEDATZEN DUT**

#### **I. titulua: XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.-** Zera da ordenantza honen xedea Gipuzkoako lurralde historikoko Onura Publikoko Mendien Katalogoko 2.015.3 zk. mendian, MARUMENDI izenekoan, AGAUTZko larreak ustiatzeko arauak ematea.

Larratzea, mendi horrek izan ditzakeen ustiapenetako bat, mendia zaindu eta hobetzearekin bat datorren eran egin behar da, uztaillaren 8an emandako Gipuzkoako Mendien 6/1994 Foru Arauari eta, batez ere, Larreak Ustiatzeko Urteko Planetan ezarritakoari jarraituz.



## **ATAUNGo UDALA**

**2. artikulua.-** Larratze gaietan Ataungo Udalak eman ditzakeen baimenak bertako herritarren edo udal barrutian dauden nekazaritzako ustialeku edo finken titularren ganaduarentzat izango dira batez ere, behi, zaldi edo ardi espezietaoak izan eta umedun edo umerik gabeko abere emeak edota azienda berritzeko abereak badira.

Zentzu horretan, larratzeko orduan lehentasuna izango dute artikuluko honen aurreko paragrafoan ezarritakoa betez, AGAUTZko auzo larreak, antolamendu baten barruan, ustiatzen ibili ziren titularren aziendek.

**3. artikulua.-** Ataungo Udalak, larreak ustiatzeko Urteko Planen bidez, zehatz ditzake zeintzuk diren larreratzeko tokiak eta denborak eta, era berean, espezieka larra dezaketen kantitatea ere. Ezarri eta arautu ditzake, era berean, aldi baterako edo iraunkorki aziendentzat sartzea debekatuta egongo diren larre tokiak, eta "hobetutzat" hartzen diren larre tokietarako baldintza espezifikokoak jarri ere.

## **II. titulua: LARRATZEA BAIMENTZEKO BALDINTZAK**

**4. artikulua.-** Ordenantza honek hartzen duen eremuan, oro har, larratzeko baimena eman daiteke behi, ardi eta zaldi aziendak dituzten abaltzainek ordenantzan dauden baldintza objektibo eta subjektiboak bete eta jarriko diren ustiatzeko kuotak ordaintzen badituzte.

**5. artikulua.-** Auzo larreak ustiatzeko udal baimena eska dezakete I. tituluko 2. artikuluko barruan egon eta zerga eta auzo betebeharreran eguneratuta badaude.

**6. artikulua.-** Larratze erregimenean eduki nahi den aziendak behar bezala identifikatuta eta Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan izena emanda egon behar du eta, saneamenduari eta abereen mugimenduari buruz dagoen arautegia betetzeaz gain, Gipuzkoako lurralde historikoan, eta udalerrri mailan udal agintariak ezar ditzaketen, derrigorrez betebeharreko guztiak bete beharko ditu.

**7. artikulua.-** Erabat debekatuta dago ahuntzak eta txerriak larreratzeko ordenantza honek hartzen dituen mendietan. Behi, ardi eta zaldi aziendei bakarrik utz dakieke larratzen, umedun edo umerik gabeko abere emeak badira, eta/edo azienda berritzeko abereak.

**8. artikulua.-** Ataungo Udalak emandako larratzeko baimenetik kanpo geratzen dira zahatz-mehatz, eskaera aurkezteko egunean, eskaera egin duen pertsona fisiko edo entitate juridikoaren izenean ez dagoenean azienda inskribatuta Ustialekuen Erroldan.



## **ATAUNgo UDALA**

Baimenetik kanpo geratzen da, era berean, merkatura doan pasadizokoazienda.

**9. artikulua.-** Ordenantza honek aipatzen dituen baimenak erreboka daitezke, emateko bete behar ziren baldintzak ez badira bete, alde batera utzi gabe zigorrak ere ezar daitezkeela, horrela bada.

### **III. titulua: BAIMENTZEKO PROZEDURA**

**10. artikulua.-** Ordenantza honek aipatzen dituen larratzeko eskaerak larratu aurreko urteko urriaren 15a baino lehen egin behar dira Udal Erregistroan eta eskaeretan adierazi behar da, espezien arabera, zenbat buru larratu nahi den. Eskaera orriarekin batera abere bakoitzaren jabearen eta identitatearen ziurtagiri egiaztagarriak aurkeztu behar dira eta eskatzen diren osasun betebeharrak betetzen direla ere egiaztatatu.

Horiez gain, larratzeko baimena emateko beharrezko derizkion datu osagarriak eska ditzake Udalak.

**11. artikulua.-** Eskaerak, egin beharreko kontsiderazio, erregulazio eta/edo mugegetekin batera, Larreak Ustiatzeko Urteko Planean sartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritzara bidali behar dira, onar ditzan.

Tramite hori bete ondoren, eskaera bakoitzaren behin-behineko ebazpena jakinaraziko die Udalak eskatzaileei. Eskaera hori behin betikoa izango da eskatzaileak ezarrita dauden udal tasak, baimendutako abereen kopuruari bakarrik dagozkionak, ordaintzen dituenen.

**12. artikulua.-** Larreak preferenteki herriko abeltzaintzat izango dira. Udalak antola ditzake ustiapen horiek ondoko irizpide hauei jarraituz:

1) Larreratzeko baimenak, hasiera batean, I. tituluko 2. artikuluaaren barruan egon eta AGAUTZko larreak, eraldatu eta hobetzeko lanen hasieratik, antolamendu baten barruan, ustiatzen ibili direnei emango zaizkie.

2) Baimen horiek beste ustiapen batzuekin bat etorriko liratekeenean, larratzeko baimena eman daiteke Ataungo auzotarrei edota udalerriko ustialeku edo etxaldean jabeen aurreko apartaduan ez badaude sartuta.

3) Mendiaren baliabide naturalak gutxitzeko arriskurik gabe, oraindik beste larratze batzuk ere baimentzeko aukera badago, larratzeko baimena eman dezake Udalak Ataunen bizi ez arren eskaera egin duten abeltzainei.





## **ATAUNGO UDALA**

Udalak eman ditzake baimenak denbora, espazio edo abelburu kopuruari begiratuta. Aurreko apartaduetako edozeinen barruan, gertatzen bada larre eskaerek mendiaren ustiapen normala gainditu egiten dutela, Udalak abelburuen kopuruaren arabera eman ditzake baimenak.

**13. artikulua.-** Ataungo Udalak emandako larratzeko baimenak urtebeterako izango dira, hau da, eskaera aurkeztutako egunaren ondoko urte natural osorako. Baimena ematen den kasuetan zigilu edo identifikatzeko udal adierazle batez markatu behar dira abereak.

**14. artikulua.-** Egin behar duten ustiapenaren ordain gisa, abelburuko (edo artaldeko) abeltzainek ordaindu behar dituzten gutxieneko kuotak jarriko ditu Udalak. Hasiara batean Udalak jarriko dituen kuotak larre horiek zaintzeak (ustiatzearen ondorioz) ekarriko dituen gastuak ordaintzeko izango dira.

### **IV. titulua: BORDAK ETA TXABOLAK ERABILITZEA**

**15. artikulua.-** Abeltzainek Agautz mendian dauden bordak eta txabolak erabiltzerakoan jarraian ezartzen den erregimen juridikoa beteko dute.

**16. artikulua.-** Bordak eta txabolak abeltzantzarako erabiliz gero, modu berezian eta bertako ohiturari jarraiki erabiliko dira, beraien aprobetxamendua indibiduala izanik, izan ere, ezin batzaie erabilera edo aprobetxamendu kolektiborik eman.

**17. artikulua.-** Aprobetxamendu honen onuradunek, Ataungo bizilagun izateaz gain, abeltzaintza ustiapenen erregistroan inskribaturik egon beharko dute eta artalde horrekin Agautz mendian larrean ibiltzeko administrazioaren baimena dutela egiaztatatu beharko dute.

**18. artikulua.-** Agautz mendiko txabolen aprobetxamendu-emakida eskumenekoa izango da eta, edozein modura ere, artzaintzaren erlazonatutako jardueraren bat burutu beharko da. Lehentasuna izango dute abeltzaintza alorreko profesionalak direla egiaztatzen dutenek, euren errentaren %50<sup>a</sup> baino gehiago jarduera horretatik datorrela egiaztatzen dutenek, eta/edo ardiak mendian bertan jertziz eta gazta mendian bertan eginez artzaintza ohiko moduan aritzen direla egiaztatzen dutenek.

**19. artikulua.-** Txabolak edo bordak erabiltzen dituzten bitartean, aprobetxamendu honen onuradunek euren kontura egin beharko dituzte borda horiek hartu zituztenean zeuden erabilera-egoera berdintsuan zaitzeko egin beharreko konponketa lanak.

**20. artikulua.-** Udalarekin izenpetutako agiriaren arabera, Ordenantza hau indarrean sartzean bordak erabiltzen ari diren abeltzainek eskubide hori izaten jarraituko dute, erabilera



## **ATAUNgo UDALA**

eta gozamen lagapenerako kontratuetan ezarritako erregimen juridikoarekin bat etorriz, eta beti ere 17. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

**21. artikulua.-** Debekatuta dago Agautz mendian txabolak eta bordak eraikitzea, Nekazaritza Departamentuaren aldeko txostena eta Udalaren berariazko baimena eduki gabe.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehena.-** Ordenantza honetan aurreikusitakoa urratuz gero, zigortzeko ahalmena Gipuzkoako lurralde historikoko Baso Administrazioari dagokio, Mendien Foru Arauean ezarritakoari jarraituz.

**Bigarrena.-** Ordenantza honetan eta Larreak Ustiatzeko Urteko Planetan erabakitakoa hobeto betetzeko, Ataungo Abeltzainen Batzordea edo Elkarteak eratu eta abian jartzen saiatuko da herriko udala.

### **AMAIERAKO XEDAPENA**

Ordenantza honek, bere behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost laneguneko epea igarota hartuko du indarra."

Batzarburuak agertu du artzainek beraiek eskatu dutela Agautz mendian larre--aprobetxamendua arautzea. Ordenantza hau proba modura ezarriko da aurten. Oraingo hau bere garaian Arantzamendirako onartu zenaren oso antzekoa da, borda eta txabolei dagokienez atal berezi bat eduki arren.

Ordenantza onartzearekin batera, artzainek elkarte bat eratu beharko dute. Elkarte hau solaskide egokia izango da Foru Aldundiko teknikoekin hitz egiteko.

Aitor Aldasorok azaldu du ordenantza onartzeko prest daudela. Dena den, bere ezarpenaren emaitzak ikusitakoan, bidezkoztat jotako aldaketak proposa ditzakete.

Horrela, bada, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, honako erabaki hau hartu du:

Lehenengo.- "Ataungo Udalaren jabetzako MARUMENDI" 2.015.3 zk.ko herri-onurako mendian larratzea arautzeko ordenantza"ri hasierako onarpena ematea.

Bigarren.- Aipatutako ordenantza hogeita hamar egunez jendearen aztergai jartzea eta interesatuei entzunaldia eskaintzea, bidezkoztat jotako erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzaten.



## **ATAUNgo UDALA**

Erreklamazio edo iradokizunik egin ezean, behinbetiko onartutzat joko da, beste izapiderik egin beharrik gabe. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 70.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

### **V.- ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEKO PARTAIDE DIREN UDALERRIEI ESLEITUTAKO HEGALKINAREN ZATIKETA ETA BASO-USTIAPENAREKIN ERLAZIONATURIK MANKOMUNITATEAK HARTUTAKO ERABAKIAREN BERRESPENA.-**

Enirio-Aralar Mankomunitateak 2002ko otsailaren 13an egindako bilkuran hartutako erabakiaren berri eman da. Mankomunitateko partaide diren udalerriei 1821eko azaroaren 22ko elkartasun-itunaren bidez esleitutako hegalkinaren zatiketa, baso-ustiapenerako gai diren eremu jakin batzuetakoa, indarrik gabe uzteko hartu da erabaki hori.

Alkatetzaren proposamenez eta bertaratutako guztien adostasunez, honako erabaki hau hartu du Udalbatzak: Enirio-Aralar Mankomunitateak hartutako erabakia onartu eta berrestea.

### **VI.- GIZARTE-ZERBITZUAK EMATEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ATAUNGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.-**

Foru Aldundiak eta Eudelek aurrez adostutako lankidetzahitzarmenari buruzko iritzia eskatu die batzarburuak gainerako kideei.

Zenbait puntu argitzeko hainbat bilera egin da Foru Aldundiko ordezkariekin. Inolako zalantzarik gabe, gizarte-zerbitzuak emateko beharra gero eta handiagoa da, eta Foru Aldundiaren jarrera Eusko Jaurlaritza zein udaleei inplikazio handiagoa eskatzearena da. Administrazio bakoitzari dagozkion eginbeharrak zeintzuk diren argitu behar da.

Hitzarmena bi urterako proposatzen da. Hori horrela, bere indarraldia 2001eko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31 artekoa izango litzateke. Horren arabera, datorren urterako beste hitzarmen bat aztertu beharko da.



## **ATAUNGo UDALA**

Gaur egun, aginpide antolaketarako beharrezkotzat jotzen den gizarte--zerbitzuen mapa ari da egiten. Mapa horretan, eman beharreko zerbitzuak zeintzuk diren eta beroriek nola eman zehaztuko da. Hori dela eta, hitzarmen hau abiapuntua baino ez da.

Azken finean, hitzarmena onartu eta sinatzea proposatu du batzarburuak, izan ere, bere ustez, erronka berri honi aurre egin behar dio udalak eta gizarte-zerbitzuen mapa egiten parte hartu, nahiz eta horrek orain zama ekonomiko handiagoa ekarri udalari.

Lourdes Etxeberria hitzarmena sinatzearen kontra dago, berori 2001-2002 urteetarako aurkeztu den arren. Udal asko azaldu dira hitzarmenaren aurka eta argitu beharreko gai asko daude.

Aurten udalaren ekarpena lau milioi pezetakoa bada, bi urteren buruan egin beharreko ekarpena hamar milioikoa izan daiteke.

Udalak elkarrekin koordinatu behar dira eta Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin beste hitzarmen bat sinatu behar da, orain proposatzen den honek ez baitu zentzurik.

Esate baterako, ez dago konforme balorazioak, menpekoak eta ez menpekoak, egiteko erabili den irizpidearekin, irizpide guztiz medikoa izateagatik.

Batzarburuak adierazi du egia dela zama gero eta handiagoa izango dela, zerbitzu hauen gaineko eskariak eta zerbitzu hauek emateko beharrak ere gero eta handiagoak izango diren neurrian.

Bestalde, azaldu nahi du udalen interesak defendatzea Eudeli dagokiola eta elkarte honek bere gain hartzen duela eginbehar hori.

Balorazioak egiteko irizpideei dagokienez, Foru Aldundiarekin egindako bileretan etengabe eztabaidatzen den gaia dela esan du.

Besterik gabe, aztergai honi buruz nahikoa eztabaidatu delarik, botu-emanketa egin eta berdinketa egon denez gero, Iñaki Eskisabel, Jexux Goikoetxea, Jaione Munduate eta Santi Etxeberriak aldeko botua eman dutelarik, eta Aitor Aldasoro, Oihana Munduate, Lourdes Etxeberria eta Joxe Mari Barandiaranek aurkakoa, bigarren bozketa egin da, eta oraingo honetan ere emaitza lehengo



## **ATAUNgo UDALA**

berbera izan denez, azkenik, batzarburua kalitateko botoaz baliatu eta onartu egin da lankidetzaz--hitzarmena sinatzeko proposamena.

### **VII.- ATAUN SAN MARTINGO HIRIGUNE HISTORIKOA BERRESKURATZEKO BIDEA EGITEKO PROIEKTUAN SARTU BEHARREKO ALDAKETA-PROPOSAMENA.-**

GI-120 errepidearen elkargunean aldaketa bat egitea proposatu du batzarburuak. Aldaketa hori datza alde bakoitzean 1,5 metroko oinezkoentzako bide bat sartzean, ezker aldeko espaloia zubiraino luzatuz.

Era berean, Bidarte-handia etxeko finkan orain dagoen itxitura berriz jartzea planteatzen da. Aurreikusitako 2 metroko hormaren ordean, horma txiki bat joango litzateke, goiko aldean burdinesi bat eramango lukeena.

Besterik gabe, botu-emanketa egin eta berdinketa egon denez gero, Iñaki Eskisabel, Jexux Goikoetxea, Jaione Munduate eta Santi Etxeberriak aldeko botua eman dutelarik, eta Aitor Aldasoro, Oihana Munduate, Lourdes Etxeberria eta Joxe Mari Barandiaranek aurkakoa, bigarren bozketa egin da, eta oraingo honetan ere emaitza lehengo berbera izan denez, azkenik, batzarburua kalitateko botoaz baliatu eta onartu egin da adierazitako aldaketak egiteko proposamena.

### **VIII.- OHIKO LANORDUTEGITIK KANPOKO PRESTASUNA DELA-ETA, EGINKIZUN ANITZETARAKO LANGILEARI LANSARI OSAGARRIA ORDAINTEZKO PROPOSAMENA.-**

Ohiko lanordutegitik kanpoko prestasuna dela-eta, Udal honetako eginkizun anitzetarako langileari %20ko lansari osagarria ordaintzea proposatu da. Dagokion batzordeak horren aldeko iritzia eman du.

Langile horri burutzen duen lana lansarrietan aitortzearen egindako proposamena da honako hau. Kanpoko lanak egiten dituzten bi langileekin modu berean jokatu da.

Aldi berean, bi langileak txandaturik eta sakeleko telefona bitarteko, hogeita lau orduko zerbitzua jarri nahi da martxan, udalerrian sor daitezkeen larrialdiak bideratzearen, SOS Deiak zerbitzuarekin koordinaturik.



## **ATAUNgo UDALA**

Besterik gabe, bertaratutako guztien adostasunez, Udalbatzak honako erabaki hau hartu du: ohiko lanordutegitik kanpoko prestasuna dela-eta, eginkizun anitzetarako langileari %20ko lansari osagarria ordaintzeko proposamena onartzea.

### **IX.- PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK BERRAZTERTZEKO**

**IDAZKETA-LANEN ADJUDIKAZIOA.**- Ataungo Planeamenduko Arau Subsidiarioak berraztertzeko idazketa-lanak, HAMASEI MILIOI BERREHUN ETA HAMABI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMABI pezetako zenbatekoz, Roberto Garzia Azpiri arkitekтуari eta Jon Orue-Etxebarria abokatuari adjudikatzea erabaki zen Alkatetzaren Erabakiaren berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **X.- HERRIBIDE ZAHARRA BUKATZEKO PROIEKTUA KONTRATATZEA.**

San Martindik Umarkiko zubira eta San Gregoriotik Ergonera bitarte herribide zaharra bukatzeko proiektua, BOST MILA BERREHUN ETA HOGEI EUROko zenbatekoz, Basoinsa, S.L.ri adjudikatzea erabaki zen Alkatetzaren Erabakiaren berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **XI.- SAN MARTINGO HILERRIAN NITXOAK EGITEKO OBRAK**

**KONTRATATZEA.**- San Martingo hilerrian 48 nitxo egiteko obrak, HOGEITA ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMoko zenbatekoz, Antonio Da Silva Almeidari adjudikatzea erabaki zen Alkatetzaren Erabakiaren berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **XII.- SAN MARTINGO HIRIGUNE HISTORIKOA BERRESKURATZEKO**

**BIDEA EGITEKO OBREI DAGOZKIEN 1, 2 ETA 3 ZK.KO EGIAZTAPENAK.**- Hona hemen, 1, 2 eta 3 zk.ko egiaztapenei dagozkien diru--zenbatekoak hurrenez hurren: BERROGEITA

HAMAR MILA BOSTEHUN ETA HAMAR EURO ETA BERROGEITA BOST ZENTIMO, HIRUROGEITA HIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HOGEITA SEI ZENTIMO, ETA HIRUROGEITA ZORTZI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HOGEITA BOST ZENTIMO. Egiaztapen horiek obra-



## **ATAUNgo UDALA**

zuzendaritzak idatzi ditu Construcciones Donosti, S.A.ren alde.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **XIII.- UHOLDEEN AURKA BABESTEKO ETA AGAUNTZA ERREKA SAN MARTIN PAREAN BIDERATZEKO PROIEKTUAREKIN ERLAZIONATURIK EGITEN ARI DIREN OBREI DAGOKIEN 1-B EGIAZTAPENA.-**

Hona hemen, 1-B egiaztapenari dagokion diru-zenbatekoa: MILIOI BAT SEIEHUN ETA HIRUROGEITA SEI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA SEI PEZETA. Egiaztapen hori obra-zuzendaritzak idatzi du Ubiri, S.L.ren alde.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **XIV.- ALKATETZAK DEKRETU BIDEZ EMANDAKO OBRA-BAIMENAK.-**

Jarraian, Alkatetzaren Dekretu bidez emandako honako lan-baimen hauen berri eman du Batzarburuak:

- Pedro Aierbe Apalategi (Katarrotegi etxea): Leihoak aldatu eta fatxada berritu.
- Nekane Aldasoro Agirrebengoa (Aldasoro enea): 2. etxebizitzako erreforma.
- Juncal Galparsoro Urbizu (Mediku etxea): fontaneria instalazioa eta sukaldeko eta bainuko zeramika aldatu.
- Eugenia Zurutuza Zurutuza (Errota berri etxea): ekonomikaren tximinia konpondu.
- Jose Migel Mujika (Lardi txiki baserria): Teilatua berritu.
- Jesusa Maiz Galparsoro (Otadi Zelai baserria): Leihoak aldatu.
- Maite Erauskin Barandiaran (Gure Izarra etxea): Tximiniak konpondu.
- Jose A. Etxeberria Begiristain (Urbitarte-enea): Eskailerak konpondu.
- Talleres Kerejeta, S.L. (Zubikoetako Industrialdea): Pabiloia eraiki.
- Felipe Munduate Zurutuza / Anizeta Zunzunegi (Arratibel Garakoa): Etxe ondoko bordari teilatua berritu.
- Patxi Arratibel Arratibel (Sariarte azpikoa baserria): Baserri ondoko bordari teilatua berritu.
- Lizardiko Jabekideak (Lizardi etxea): Igogailuaren berriztapen lanak.



## **ATAUNgo UDALA**

- Luis Rezola Zeberio (Iztator Zaharra baserria): Leihoak aldatu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

AKTA BUKAERA.- Eta aztergai gehiago ez dagoenez, Alkatetzak, 20:45etan, bilkura bukatutzat eman eta honako akta hau jaso da. Nik, idazkariak, fede ematen dut.